



LUR-ZAINZAILETZARAKO HITZARMENA. PARTZELA: LINDARI. KOKAPENA: URKO MENDIAREN MALDA.

Eibarren, bi mila eta hamalauko urtarrilaren 13an

Bilduta,

Batetik, MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL jauna, EIBARKO UDALEKO alkate-udalburua,

Bestetik, Miguel Gallastegui Ariznabarreta, adinez nagusia eta [REDACTED] bizi dena - [REDACTED], [REDACTED], [REDACTED] NAN zenbakiduna,

HITZARMEN hau egiteko, Hitzarmena, Urko-Amaña aldeko maldan Lindare izenez ezagutzen den parajea dauden lursailen lur-zaintzailtzako.

AURREKARIAK

A. Miguel Gallastegui Ariznabarreta jauna, ondoren aipatuko den finka honen jabea da bertan azaltzen den tituluagatik.

Lur-saila Eibarko hirian, Artegietan baserritik datorrena eta 98.362 m² dituen. Mugarriak: mendebaldean Bizkaia eta Gipuzkoa probintzien banalerroa; hegoaldean banandutako lur-sailak, saihesbideak okupatu dituenak; sortaldean, banatzen den lur-sailaren gainerako zatia Jose Maria Guisasola jaunarena eta Gallastegui eta Barinaga jaunena; ; lur-sail horietatik erreka batek bereizten ditu; eta iparraldean, zati bat banantzen den lur-sailaren gainerako zatia, Jose Maria Guisasola jaunarena, Gallastegui eta Barinaga jaunaren jabetzatik banantzen duen erreka eta Peñafloredako kondearen jabetza.

Titulua: José Maria Guisasola Acha jaunari, Iruñeko Notarioen Elkargoko Juan Ignacio Gomeza y Ozamiz notario jaunak baimendutako eskrituran jaso, 1957ko martxoaren 14an.

B. Eibarko udalak, Ingurumen Sailaren bidez, lurralde-zaintzarako neurri batzuk onartu ditu, udalerriri honetako hainbat lekutako balio naturalak zaindu eta berreskuratu ahal izateko. Neurri horien artean, Urki mendiaren maldan dagoen Lindare parajea bertako arbolekin edo zuhaitzekin basoberritu nahi da, alde aurretik lursaila garbituta, sastrakak kenduta eta lursail osoa hesiz inguratuta. Helburua hau da: paraje horrek berez dituen balioak berreskuratzea, eta lursail horren higadurak Amaña auzoari ekar diezaiokkeen arriskuari aurrea hartzea, izan ere, auzoaren gainean baitago.

Lur-zaintzailtza, estrategia- eta erreminta-multzo bat da, lur-jabeak eta erabiltzaileak kontserbazioaz eta natura-, kultura- eta paisaia-baliabideen balioaz eta erabilera onaz jabetu nahi dituenak. Hori lortzeko, lurjabeen, zaintzailtza-erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko elkarlan akordioak eta mekanismoak sustatzen dira.

Natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 72. artikulua zera dio: administrazio publikoek lur-zaintzailtza sustatuko dutela zaintza-erakundeen eta finka pribatuen jabeen edo, helburu nagusiz, ondare naturala eta biodibertsitatea zaintzea duten finka publikoen arteko akordioen bidez.

C.- Helburu horren arabera, alde biek honako hitzarmen hau izenpetzen dute, azpian doazen klausula hauen arabera eraenduko dena:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmen honen helburua da, Urkö azpian, mendiaren maldan, Amaña aldean dagoen Lindari izeneko lursailean bertako arboladia berreskuratzen utziko duten ekintzak hitzartzea, paraje haren natura-balioak berreskurtzeko eta mendiaren higadurak edo erosioak Amaña auzoari ekar diezazkiokeen arriskuei aurrea hartzeko.

Bigarrena.- Gallastegui jaunak, A atalean deskribatu den bere jabetzako finka erabiltzeko okupatzen uzten dio Eibarko Udalari, komodatu-kontratu bidez. Horren ondorioz, okupazio hori preziorik edo zenbatekorik ordaintzeke eta jabearen lagapen hutsez egingo da.

Eibarko udalak, hitzarmen honen A aurrekarian identifikatu den Gallastegui jaunaren jabetzako finka horretan 70.000 m² inguruko guneko bat basoberrituko du bere kontura. Horretarako, aldez aurretik, lur-saila garbitu eta sastrakak kenduko ditu, hori egin ondoren, bertako arbola hostozabalak sartzeko. Eusko Jaurlearitzak egindako landaredi-bildumaren mapak eta inguru honetako basozainak adierazitakoaren arabera, hauek sartuko lirake: *quercus robur* (haritz kandunduna), *fraxinus excelsio* (lizar arrunta) eta *betula alba* (urkia) arbolak.

Hirugarrena. Basoberritze hori egin aurretik, Udalak, basotu nahi den lur-sail horren perimetro osoa itxiko du ardi-sarez pinu zuriarekin edo akaziarekin egindako tinkoekin, punta erreta edukiko duten tinkoak, inguru hartan dabilen ganaduak arbolak jan edo kaltetu ez ditzan.

Laugarrena. Lagapen epea hamabost urtekoa izango da, egun honetatik zenbatuta.

Lur-saila okupatzeko emandako epe horretan, udalak, hango garbiketa, inausketa, bakanketa eta gainerako mantentze-lan guztiak egin beharko ditu, sartzen diren arbolak hazteko finka hura ahalik eta egoerarik onenean edukita.

Horrez gain, udalaren kontura geratuko dira finka horri dagozkion gastu guztiak -zergenak eta obligazioenak, aseguruak, OZ,...- Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, errenta ordainduko denik.

Bosgarrena. Gallastegui jaunak, hala behar izanez gero, udalak, basoberritze eta mantentze lanerako beste erakunde batzuk eman diezazkioketen laguntzak lortzeko eta kudeatzeko behar diren dokumentu guztiak entregatuko ditu.

Sastrakak garbitzeko eta kontratu honen xede den basoberritzerako, beste Administrazio batzuk diru-laguntzaren bat emanaz gero, udalak, jabetzari, diru-konpentsazio bat ordainduko dio lortzen diren laguntzen % 50ari dagokiona.

Seigarrena. Gallastegui jaunak, finkaren jabe legez, bere jabetza hori beste hirugarren bati saltzeko ahalmena izango du baldin eta jabe berriak, hitzarmen honen ondorioz, Eibarko udalarekin hartu dituen obligazioak bere gain hartzen baditu.



Zazpigarrena. Lursailak erabiltzen lagatzeko aipatu den 15 urteko epe hori igaro ondoren, lursailak eta han egindako landaketa guztiak, Gallastegui jaunaren jabetzapean edo jabetza-titulartasunean haren ondoren geratzen denaren jabetzapean geratuko dira. Beraz, baso-aprobetxamendua bere erantzukizunekoa izango da, basogintzaren alorrean eskumena duten Administrazioek emandako xedapen orokorrek diotena errespetatuta.

Zortzigarrena. Udalak, hitzarmen honetan hartu dituen obligazioak beteko ez balitu, finkaren jabetzak obligazioak betetzea eska diezaioke. Eskaera edo errekerimendu hori egin eta hile bateko epean erantzunik ez balego, finkaren jabetzak; udalari, haren erabilpena itzultzeko eta hitzarmen hau bertan behera uzteko eska diezaioke. Hitzarmenak dioena ez betetzeagatik itzultzeko eskaera egin ondoren, udala derrigortuta dago finka haren jabearen esku uztera, inongo atzerapenik gabe.

Klausula horiek diotena irakurrita, beraien interesen aldekoak direla iritzi zaie alde biei, beraz, hitzarmenaren muina berretsita, ale bi izenpetu dituzte ondorio bakar batekin, idazpuruan esandako leku eta egun horretan.

EIBARKO ALKATE UDALBURUA

EL ALCALDE PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Sta: Miguel de



Sta: Miguel Gallastegui Ariznabarreta

